

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2022ko azaroak 11 · 1247 zenbakia

ERAIKIN ESANGURATSUEN ITURRIRA BIDAIA

BLACK // FRIDAY

2MÓ 79€

MONOFOKALAK

ETA ASKOZ GEHIAGO...



BEL BILBO

Kontratuatu optikan kargelamaren ezaguerarekin.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfidantza - diseinua

www.multiópticas.com ●●●



JESUS MARI
IRAZU

San Andres BERTSO JAIALDIA

azaroak **24** eguena
COLISEOAN, 18:30ean



MIREN
ARTETXE

GAI-JARTZAILEX: JON MIKEL MUJIKA

*Sarrerak (6€) egunean bertan
salduko dira Coliseoko
leihatilan 17:30etik aurrera*



EÑAUT
MARTIKORENA



ONINTZA
ENBEITA



LASTER KALEAN

GIDA 2023

AUKERARIK
ONENA
Zure **enpresa,**
komertzio edo
zerbitzua
erakusteko

#EibarrenBadakagu



publizitatea@etakitto.eus
943 20 67 76 - 688 62 15 35



Jarraitu gaitzazu!



Armagintzaren Museoa ikus daitekeen "Eibar Organoz Blai!" erakusketaren osagarri gisa, aurkezpen ekitaldia egin zuten atzo Portalean. Bertan Yanire Sagredok egindako bideoa eta Natalie Hickeyk, Leire Kareagak eta Iratxe Unanuek zuzendutako Zeramika eta Margo Udal Eskoletako ikasleen sorkuntza lanak erakutsi zituzten. Erakusketa abenduaren 11ra arte bisitatu daiteke, Portaleko 5. solairuan.

Altzoa emakume alargunen elkarteak 25 urte bete ditu auten eta ate irekien jardunaldia egingo du bihar, Coliseoan, 10:00etatik 14:00etara.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA
...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez

DISEINUA
Maku Oruezabal

MAKETAZIOA
...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri

PUBLIZITATEA
Belen Ulazia

TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.800 ale

INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Lotsa gutxiko adarjotzea

Urtebete daramat Udal Batzarretara joaten, EH Bilduk posizioz aldatu eta PSErekin akordioa sinatu zuenetik. Horren ondorioz, ondo baino hobeto dakite Estaziño eta Azitain arteko trenbidea estaltzearen erantzule direla. Izan ere, proiektu hori egingo bada, eurek PSErekin egindako kromo aldaketagatik izango da. Arestian udalak onartutako hitzarmena (2010ekoa, PSEk gehiengo osoa zueneko) indargabetuta zegoen honezkero (GAO 242, 2021-12-21).

Justifikaezina dena justifikatzen saiatzen dira, gurdia bidetik ateraz, gaiari ihes eginez, eta biktimarena eginez, azken Udalbatzan bezala (2022-11-02): Bilduko bozeramaileak kaltetutako herritarren errespetu falta salatu, eta alkatearen laguntza eskatu zuen. Azken hori pozarren gongo da lagun berriekin. Hamaika ikusteko jaiok gara!

Aralarreko zinegotzi nintzela deitu gintuzten traidore, putre edo torturatzaile. Eta ni nintzen, konparatuz, halako gutxien jasan zuena. Adarjotzea dirudi zuek orain errespetu eske etortzea. Deseroso zaudete herritar kaltetuak zuekin haserre daudelako. Emandako hitza ez duzuelako bete!

Ispilu aurrean jartzen zaituztete, agerian geratzen da zuen inkoherentzia, gezurra, urte luzez esan ondoren astakeria horren kontra zeundetela. Urteak hori defendatzen eta orain beheko aldeko regenerazioaz hitz egiten duzue, kromo aldaketa justifikatzen saiatzeko.

Zuena bai lotsagabekeria! Barkatu hau ere errespetu falta bada.

Mariasun Gartzia

Astean esanak



Ez dut ulertzen nolatan dauden hainbeste emakume amatasun subrogatua onartzen dutenak. Haur merkatu bat da. Guztiz kondenatzen dut bide hori, biziki. Hori bai, ez ditut kondenatzen haurdunaldi subrogatuak dituzten emakumeak, horietako asko andre pobretuak baitira eta, akaso, hori dute salbazio bidea, diru pixka bat lortzeko modua. Badakit altruismoa erabili ohi dutela argudio gisa. Batzuetan esaten zaigu amatasun subrogatua dohain bat dela emakume batek egiten duen eta oinarriarrian maitasuna baizik ez duen dohain bat. Hori gezurra da, ordaindu egiten baita: truke komertziala da, merkatu batean egiten dena.

SILVIA FEDERICI, pentsalari feminista

Goizegi kirol bakarrean espezializatzeak arrisku bizia dakar, eta multikirolak ez dituen eragin negatibo batzuk sortzen ditu, bereziki osasunean. Espezializatzen direnek entrenamendu ordu gehiago izaten dituzte; gehiegizko erabilerek lesio larriak sortu ditzake. Psikologikoki ere, testuinguru hori lehiakorra bihurtzen da, eta sortutako espektatibek izugarriko estres egoerak ekarriko dizkio umeari. Bestalde, lehiaketa ereduetan ez nago eredu mistoaren alde: lehiaketa sistema batean denak batera jokatzeko jarriz gero, neska askok utzi egingo dute. Errekonozimendu handiagoa duten kiroletan abilezia handiagoa izan ohi dute mutilek, eta hain abilak ez direnak segituan geratzen dira alde batera.

OIDUI USABIAGA, EHUko ikerlaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OLIOA TA BIÑAGRIA EZ IBILLI ALPERRIK NAHASTATZEN →

Ezinezko gauzak egiten saiatzea alperrikoa dela adierazteko.

ON → Txarra ez dena. “Gure etxeko jabia ona da”. Askotan errepikatuta erabiltzen da oso ona dela adierazteko. “Txarra ez, baiña on-ona bez”.

Zentzu ironikoan kontrakoa adierazteko ere erabiltzen da. “Ointxe ikusiko dozue zer dan ona!” “Nik egin juat ona!”

Gaztelarazko, ‘menudo’. “Ona dok ba bera ixillik egoteko!”



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 11
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 12
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
DOMEKA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 14
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 15
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 16
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUENA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 18
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2022an, Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepedeak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Miren Urdanpilleta Uriarte.** 65 urte. 2022-11-02.
- **Olga Secunza Gutierrez.** 70 urte. 2022-11-02.
- **Miren Ibazeta Azpillaga.** 94 urte. 2022-11-03.
- **Rafael Lapeyra Gisasola.** 90 urte. 2022-11-03.
- **Manuel Agirre Agirre.** 74 urte. 2022-11-03.
- **Ana Dominguez Areta.** 61 urte. 2022-11-05.
- **Jesus Garcia Diez.** 91 urte. 2022-11-05.
- **Francisco Sanchez Rivas.** 90 urte. 2022-11-06.
- **Antonio Costa Castro.** 78 urte. 2022-11-07.
- **Pedro Garcia Diez.** 77 urte. 2022-11-08.

Jaiotakoak

- **Iris Zubillaga Myard.** 2022-11-01.



Gabilondo birgaitzeko 5 milioi jasoko ditu Udalak Jaurlaritzatik

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 4.980.125 euroko dirulaguntza eman dio Eibarko Udalari, Barrena kalean dagoen “Hijos de Gabilondo” eraikina birgaitzeko. Ekimena Urkizutik Azitaineraino doan zatia, Eibarko ekialdea osorik, berroneratzeko planaren baitan kokatzen da.

Dirulaguntzaren berri eman zuten aurreko astean Miguel de los Toyos Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren sailburuordeak eta Jon Iraola alkateak eta, esandakoari jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren

hiri-berroneratze integralerako proiektuetara bideratutako Inbertsio Estrategikoen Erakunde Arteko Planaren baitan kokatzen da ekimena. Udalak orain dela gutxi erosi zuen Barrena kaleko “Hijos de Gabilondo” industria-eraikin zaharra, 2.750.000 eurotan, hiriko zerbitzurako ekipamendu berri bihurtzeko asmoz. Honako hau gune hori osorik berroneratzeko beste ekimen batzuei (Txonta berroneratzea eta geltokitik Azitainerako tartean trenbidearen ibilbidea estaltzea, besteak beste) lotutako proiektua da.

“Filmetako armak. Museoaren bilduma zineman” erakusketa berria

Gaurzabalduko dute “Filmetako armak. Museoaren bilduma zineman” erakusketa Armagintzaren Museoan, Espainiako zinematografian azaltzen diren hainbat piezarekin. Museoaren bilduma osatzen duten hainbat arma erakutsiko dituzte

bertan eta, horrez gain, film historikoetako sekuentziak eta fotografiamak ikusi ahal izango dira, gerra zibilar buruzko eta akziozko pelikuletakoak... eta, horiekin batera, piezen fitxa teknikoak. Martxoaren 19ra arte egongo da ikusgai



Ipuruako jubilatutako etxeak 37 urte bete dituela ospatu dute bazkideek

Ipuruako jubilatuen egoitzak urrian ospatu du bere 37. urteurrena eta, hori dela eta, aurreko domekan Unzaga Plaza hotolean bazkaria egin zuten, aurreko 85 urte bete dituzten bazkideen omenez. Bertan 62 lagun bildu ziren eta omendutako 27 lagunei opariak banatu zizkieten. Horrez gain, jubiletzeko urteurren jaia egin zuten hilaren 27an. Jakinarazi dutenez, une honetan inor ez da arduratzen bertako tabernaz eta, norbaitek interesa izanez gero, 696064396 telefono zenbakira deitu dezake. Bestalde, fisioterapeuta bila dabilta baita ere.



Juan San Martinen lanen erakusketa liburutegian

Juan San Martin euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena (1922-2022) dela eta, Eibarko udal liburutegiak haren omenezko erakusketa prestatu du, material ugariarekin. Abenduaren 18ra arte joan daiteke bisitan.



Eibarko 19 odol-maileri esker ona azaltzeko omenaldia egin zen domekan

Eibarko odol-emaileen eguna ospatu zuten domekan eta, beste batzuetan bezala, omenaldia egin zieten 25, 40, 50, 75 donazio egindakoei eta 100 alditan odol-emaile eman duen lagun bati. Aurten 19 odol-emaile omendu dituzte Eibarren eta, hori ospatzeko, bazkaria egin zuten Eskarne jatetxean. Odol-emaileen elkarteko ordezkariak eskerrak eman nahi dizkiete ospakizunera joandako guztiei,

baita joateko aukerarik izan ez zutenei ere.

Bestalde, Untzagako jubilatutako emandako laguntza, hamabostean behin odol-emaileei lokala lagatzen dielako. Urtea amaitu baino lehen odola eman nahi dutenek bi egunetan izango dute horretarako aukera: azaroaren 24an eta abenduaren 22an.

Xixongo CNT-ko auzipetuekin bat eginik

CNT sindikatuak deituta, elkarretaratzea egin zen barixakuan askatasun sindikalaren aurkako eraso salatzeke. Diotenez, “Xixonen sei lankide zigortu dituzte 3 urte eta erdiko espetxe-zigorra betetzera eta 150.000 euroko kalte-ordaina ordaintzera. La Suiza kasua ez da gertakari isolatu bat, protesta sozialaren judizializazioaren eta sindikalismoaren aurkako errepresioaren ondorioz gertatutako negarren kapitulua baizik. Hala ere, Xixongo seiak kartzelan sartzea jauzi kualitatibo handia da, ez baitituzte zigortu

indarkeria delituren batengatik, bai zik eta soilik Gobernuaren Ordezkaritzari jakinarazitako elkartasun-elkarretaratzeetan modu baketsuan parte hartzeagatik eta enpresarekin negoziatzen saiatzeagatik”.

Ohartarazi dutenez, aurrekari horrek edozein ekintza sindikal askatasun jarraitzeko orduan eragina izan dezake. Hori dela eta, azaroaren 19an EAEko hainbat tokitan (12:00etan hiru hiriburuetan) egingo diren elkarretaratzeetan parte hartzera gonbidatu dituzte herri-tarrak.

Azarorako programa zabaldu prestatu dute Untzagako jubilatuek

Urteroko martxan, azarorako jardueraz betetako egitaraua prestatu dute Untzagako jubilatutako etxeok. Bihar bertan hasiko dira, Manixen Lagunarteak J.D. Arratek izan zuten foball taldeari eskainitako erakusketa zabaldua. Abenduaren 4ra arte egongo da ikusgai. Astelehenean, berriz, Gaztairerri ospatzeko gaztainak erre eta banatuko dituzte eta Alberto Viteri sendagileak hitzaldia emango du. Azaroaren 18an, berriz, moda desfilea egingo dute eta, hurrengo egunean, Richar Díazen omenezko III. Zurrurutuna txapelketa egingo dute jubilatutako 3. pisuan. Hilaren 21ean Previsorako teknikariak “Testimonio Vital” hitzaldia emango dute, 24an kina berezia egingo dute, 26an 85 urte dituzten bazkideak omenduko dituzte, Untzaga abesbatzaren parte-hartzea izango duen meza San Andres elizan ospatuta. Ondoren, Untzaga Plazan bazkaria egingo da eta bertan banatuko dizkiete opariak omenduei. Eta hurrengo egunean amaituko dituzte jarduerak, Karmengo Amaren elizan Untzagako abesbatzak eskainiko duen kontzertuarekin.





Ur-hornidura berritzeko lanen eraginez Bitor Sarasketa kalea itxita dago

Bitor Sarasketa kaleko ur-hornidura sarea berritzeko lanen bigarren fasea hasi da eta, horren eraginez, kalea itxi egin dute, epaitegi zaharren eraikinaren aldameneko bihurtunetik Estaziño kaleraino. Beraz, abendura bitartean, lanen eraginez aldaketa handiak egongo dira ibilgailuen trafikoa, baita aparkalekuetako gune publiko zein pribatuarentarako sarbideetan ere: Urkizu ingurutik Bitor Sarasketara doazen ibilgailuek, 12. zenbakiaren parean (lehenengo epaitegien

aurrean). Matsariarantz jarraitu beharko dute tuneletik, eta handik Estaziñora itzuli Ibagain eta Pagaegitik; edo, bestela, saihesbidea hartu Matsarian, Eibar erdigunerantz jarraitzeko. Nolanahi ere, salbuespenak egongo dira kale horretako aparkaleku publiko zein pribatuarentara sartzeko. Gipuzkoako Urak erakundeak Udalarri adierazidionez, proiektuaren bigarren fase hori bi zatitan egingo dute eta abenduaren azken egunetan amaituko dituzte lanak.

Enpresen eraldaketa digitalari buruzko jardunaldia egingo da Armeria Eskolan

Enpresetako eraldaketa digitalaren erronkari buruz hitz egiteko jardunaldia egingo da Armeria Eskolan datorren egunean, 12:00etan, eta ordubeteko iraupena izango du. Ekitaldian enpresetako eraldaketa digitalari ekitearen garrantziaz hitz egingo dute arlo hori ondo ezagutzen duten hainbat gonbidatuek eta, horrez gain, "Industria Mantentzearen

Digitalizazioa", enpresei digitalizazio-prozesuan laguntzeko Armeria Eskolak martxan ipini duen espezializazio berria azalduko dute.

Interesa duen edozeinek har dezake parte. Informazio gehiago eskatzeko eta izena emateko elkar-tea@armeriaeskola.eus helbidera idatzi edo 943 20 32 44 telefono zenbakira deitu.

Astelehenean abiatuko da EMGI-ren erosketa-bonuen kanpaina berria

Astelehenean hasiko da erosketa-bonuen kanpaina berria, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren eta Udalaren eskutik. Kanpaina honetan Eibarko 180 merkataritza eta ostalaritza establezimenduk hartuko dute parte eta, bonuari esker, %30eko deskontuarekin erosi ahal izango da (35 euro ordainduta 50 euroko balioa gastatu ahal izango da). Bonuak erosteko aukera bi daude: merkataritza establezimenduetan erabiltzeko bonu bi erosi daitezke NAN bakoitzeko. Ostalaritzako bonuekin, berriz, 17,50 euro ordainduta 25 euro gastatu daitezke taberna eta jatetxeetan (NAN bakoitzeko lau erosi daitezke). Astelehenean hasiko dira bonuak saltzen, eta online (www.nikeibarreneerostendot.eus webgunean) egin daiteke. Bonuak erosi ondoren, Eibar Merkataritza Gune Irekiak Isasi kaleko 26-behean egokitu duen bulegoan jaso ahalko dira. Aurrez aurreko salmenta, bestalde, Eibarren bizi diren 60 urte gorakoentzat baino ez da. Bestalde, bulegoa zabaltzeko ordutegia hau da: 09:00etatik 11:30era eta 15:00etatik 17:30era (asteleheneetik eguenera); eta 09:00etatik 11:30era barixakuetan. Bonuak erosteko azken eguna azaroaren 25a izango da eta erabiltzeko azken eguna, berriz, azaroak 27.



AUTUAN

SANANDRESAK GASTEIZEN

Gasteizen bizi diren eibartarrek abenduaren 4an ospatuko dute XXII. San Andres Eguna, pandemiaren aurretik egin ohi zuten bezala: 12:30ean El Toloño tabernan elkartuko dira eta bazkaria, berriz, El Portalón jatetxean izango da, 14:30ean. Joan nahi duenak 45 euro ordaindu beharko ditu 636 63 15 35 telefono zenbakian (Bizum edo transferentzia bitartez, Fernan-en izenean), izen-abizenak ipinita.



1955ean JAIOTAKOEN JAIA

Azaroaren 26an ospatuko dute beraien eguna 1955ean jaiotakoek eta oraindik izena emateko aukera dago (azken eguna azaroak 16 da). Animatuz gero, 95 euro sartu behar dira Kutxabank-en, ES18 2095 5035 0091 2180 3219 kontuan, edo bestela Bizum bidez ordaindu 611676665 telefonoan (izen-abizenak eta kontzeptua ipinita). Ospakizunerako, berriz, 13:00ean elkartuko dira Untzagan, argazkia egin eta piskolabisa hartzeko. Bazkaria Unzaga Plaza hotelean izango da, 15:00etan, eta ondoren dantzan aritzeko eta zerbait edateko aukera izango dute parte hartzera animatzen direnek.



Euskadiko emakume alargunen egoera aztertzeko jardunaldia egingo da bihar

Eguaztenez aurkeztu zuen Al-tzoa Eibarko Alargunen Elkarteak biharko antolatu duen ate irekien jardunaldia. "Euskadiko Emakume Alargunen Elkartearen Federazioaren (IEF) Lorpenak eta erronkak" izenburuko saioa Coliseon egingo da, 10:00etatik aurrera. Eibarko Al-tzoa elkartearen 27. urteurrena ospatzeaz gain, orain dela gutxi hil den Maite Bilbao federazioaren lehen-dakaria omenduko dute ekitaldian.

Jardunaldia mahaiaren aurkezpenarekin hasiko da eta jarraian egingo dute omenaldia. 11:30ean antzerki emanaldia eskainiko dute eta, zerbait jateko atsedendiaren ondoren, mahai-ingurua hasiko da (12:20ak aldera). Galderak egin eta eztabaidarako tartea zabalduko da ondoren eta 13:30ean amaituko da ekitaldia. Bazkari eta dantzaldiarekin itxiko dute egitaraua, Unzaga Plaza hotelean.

Automobila hankaz gora

Eguazten goizean auto bat irauli zen Romualdo Galdos kalean, Ez-beharra 10:00ak aldera gertatu zen eta, zorionez, ez zen inor zauritu. Badirudi aparkatuta zegoen kotxe baten erroberaren gainean igo zenean gertatu zela iraultzea.



Blues Hotsak www.blueshotsak.com 2022ko Otsaia 19:30 SORALUZE HERRIKO ANTZERKIA AURRERAPEN KONZERTUA IRATIA 30 ABENDUA 19:30 STEVE KRASE TRAVELLIN BROTHERS	ABENDUA 17 OSTEGUNA 19:00 THE BLACK WOODSTOCK FILMA SUMMER OF SOUL	ABENDUA 18 OTZARRA 20:00 ITTIAR YAGUE & PAUL SAN MARTIN BOBBI SMITH IS RECORDING	ABENDUA 19 LABURRITIA 20:00 NIKO ETIART & HAFA-HAPA	ABENDUA 20 ABENDUA 19:00 CARLTON JUMER SMITH & THE QUESTING FRODOLOA MUSIKA ISKOLA 22:30
--	---	---	---	---

Eibarko lehen udal arkitektoaren historia

Informazio
gehiago:



Orain dela gutxi berritzu dute Ibarkurutzeko iturria eta, horren harira, Estibaliz Gonzalez irakasle. idazle eta historiazaleak Urbano Manchobasen figura ekarri digu gogora. Eibarko lehen udal arkitektoak iturria berritzeko proposamena egin zuen 1935ean, baina azkenean ezin izan zuten gauzatu. Dena dela, haritik tiraka, Manchobasek herrian egindako proiektuen berri izan dugu eta bere historia zoragarria kontatu digu Gonzalezek.

Urbano Manchobas Carreaga Ermuan jaio zen 1886ko abenduaren 7an. Aitaren lana Madrilen zegoenez, familiak sarri egiten zituen joan-etorriak eta Urbanok, 16 urteko mutikoa zela, Madrilen Arkitektura ikasteari ekin zion. Ikasketak amaitzean, estudio teknikoa jarri zuen Madrilén Miguel Garcia-Lomas ikaskidearekin. Azken honek Asturiasen arbasoak zituen eta, horrela, Ribadesellan, Llanesen eta beste hainbat tokitan etxe asko proiektatzeko eta eraikitzeko aukera izan zuten.

Euskal Herrira bueltan, 1925ean Manolita Egaña Eitzako auzo-eskolan maistra eta Ermuan ostatu hartuta zegoen donostiarrarekin ezkondu zen Arantzazun, eta 1927an, Eibarko Udalak arkitekto plaza eskaini zuenean, Manchobasek bere burua aurkeztu eta aukeratu egin zuten. “Plaza zuen Eibarko lehen udal-arkitektoa izan zen”, Gonzalezek esan digunez.




Bederatzi urte eman zituen udal-arkitekto bezala eta berak egindako 84 dossier eta lan-espeditente inguru daude gordeta Udal Artxiboan. “Zoragarriak dira, oso txukunak, xehetasun askorekin. Obrak, eskaerak, marrazkiak... daude”, diosku Gonzalezek. “Izan ere, bera arkitektoa izanik, oso marrazkilari ona zen”.

Manchobasek egindako obra asko gizartera begira egindakoak izan ziren, sasoiko beharren arabera. “Adibidez, Orbeatarren panteoia, tuberkulosoen ospitalea eta infekzioen pabilioia Legarren, La Salle Isasi ikastetxea, labaderoak egin zituen, auzo-eskolak Maltzagan eta Aginagan, kapera bat...”, zerrendatzen ditu Gonzalezek, baina askoz ere gehiago egin zuen.

Gizartera begira egindako lanez gain, tailerrak eraiki zituen, berriztatze-lanak egin, handitu... “Esate baterako, ABC, Aurrera, Orbearen handipena, Kruzelegirena, BH, Margola tindategia bere proiektua da... Herriko tailer esanguratsu askok dute bere ukitua”, Gonzalezek kontatu digunez.

Manchobasek proiektatutako lan asko gauzatu ahal izan ziren, baina badaude egin ahal ezin izan ziren zenbait proiektu esanguratsu: Ibarburutzeko iturriaren berriztapena eta Untzaga plazan bigarren hezkuntzako institutua eraikitzea. “Hori bai, kiosko bat egin zuen, beti edukitzen zuen kontuan komun publikoak eraikitzea... Beti zuen buuruan jendearentzat gauzak egitea”, Gonzalezek dioenez.

Ibarburutzeko iturriaren proiektua
Ibarburutzeko iturriaren inguruko



Urbano Manchobasek egindako Ibarburutzeko iturriaren planoak. ©EIBARKO UDAL ARTXIBOIA

lehen aipamen idatzia 1884koa da. “Bertan, 118 bizilagunek Udalari, edateko ura behar dela esanez, iturri bat eraikitzea eskatzen diote, bestela urrutira joan behar direlako ur bila”, kontatu digu Gonzalezek.

Alegazioak eta herritar ezberdinen eskaerak tarteko, zortzi urte itxaron behar izan zituzten iturria eraikitzeko. Beraz, 1892. urtean egin zuten iturria, Agustin Barrenechea y Salegui obra-maisuak aurkeztutako proiektuaren arabera, eta bi kainu zituen, bata Maria Angela kalera

begira zegoena eta bestea Arraguetakalera.

Ibarburutzeko iturria, ostera, “oso tabarrosa izan da beti”, Gonzalezek dioenez. “Filtrazio asko zituen, kanalizazioan arazoak... eta 1935ean, Urbano Manchobasek, herriko udal-proiektu asko amaitzen daudela ikusita eta langabeziari aurre egiteko asmoz, Ibarburutzen iturria eta komun-publikoak egitea proposatzen du”, azaldu digu. Horrela, herriari zerbitzuak emateaz gain, herritarrei lana emango zielakoan.



Ekzerrean, Hilario Unzetaren txaletak. Eskuinean goian, Urbano Manchobas. Eskuinean behean, La Salle Isasi..

Manchobasek 1935eko abenduan egin zuen eskaera “eta hilabete batzuk geroago badakigu zer gertatu zen, gerra etorri zen, eta bertan behera geratu ziren proiektu guztiak”, diosku Gonzalezek. Beraz, eibartarrek 1944. urtera arte itxaron behar izan zuten iturri berritua eduki ahal izateko. “Orduan, iturria bi kainutik lau kainu izatera pasa zen”, azaldu digu.

Manchobas erbestean

Manchobasen Ibarkurutzeko iturriaren proiektua ezin izan zen gauzatu eta Manchobas bera erbesterratu egin behar izan zen. Izan ere, udal-arkitektoa zenez, lehergailuek eta bonbek egindako kalteak gainbegiratu behar zituen. “Ez dakigu horren harira izan zen edo zer, baina proposamen bat etorri zitzaion: Ormaiztegiko biaduktua moztea tropa frankistei bidea ixteko. Berak esan zuen nondik moztu behar zen biaduktua bere osotasunean mantendu zedin, frankistei bidea moztu

>>> "Manchobasek beti zuen buruan jendearentzat gauzak egitea"

>>> "ABC, Aurrera, Orbea, BH... Herriko tailer esanguratsu askok dute bere ukitua"

nahi zietelako baina ez biaduktua suntsitu. Orduan, frankistek ekin-tzaren egileak identifikatu zituzten eta heriotza-zigorra jarri zieten inongo epaiketarik gabe”, azaldu digu Gonzalezek.

Gauzak horrela, Ziburura erbesterratu zen lehenik eta Anberesera gero. Han Eusko Jaurlaritzaren funtzionario izan zen, baina petrolioari esker hazten ari zen Venezuelan euskaldunei harrera handia egiten zieten, hara joan zen 1939an. “Eraikuntza enpresa baten lanean eman zuen han bere bizitza gehiena eta gauza asko eraiki zituen, tartean Coromotoko eliza zoragarria”, diosku Gonzalezek. “Venezuelak ‘ondare kultural’ izendatu ditu bere eraikin asko”.

Euskal Herrira itzultzen ahalgindu zen, baina bere aurkako auzi judicialak indarrean jarraitu zuen eta 1968an Caracasen hil zen, “Toribio Etxebarria laguna baino astebete geroago”, amaitzen du Gonzalezek.

Eibarko Udalak eta Debegesak garatzen diharduten HELDU! programan zortzi ekintzaile ari dira euren enpresak sortzeko lehen pausoak ematen. Formazio espezializatua, aholkularitza aditua eta tutoretza pertsonalizatua eskaintzen zaie. Ekintzaile horietako bat da aspaldi Eibarren bizi den Braulio Villalon ermuarra. Industria mundutik dator Braulio eta industriarekin lotutako zerbitzuak emango dituen enpresa sortzen ari da.



BRAULIO VILLALON • HELDU! programako ekintzailea

“Ingeniaritza zerbitzua eskaintzen diegu hainbat arlotan hobetu nahi duten industria enpresei”

Nola sortu zen zeuen proiektua HELDU! programaren baitan garatzeko ideia?

Sistemas de Producción Toyota (TPS) – Metodologías Lean Manufacturing filosofian oinarritutako ikastaroa jaso genuen COITIBI Bizkaiko Ingeniarien Elkargoan, Bilbon. LMn lider izateko prestakuntza jaso genuen sei hilabetez. Merkatuaren azterketa egin ondoren, eta ikusirik Debarrena eskualdean ez zegoela teknika horietan zerbitzu pertsonalizaturik ematen zuen enpresarik, nire bi bazkideei adierazi nien aukera ona izan zitekeela HELDU programan parte hartzea Debegesaren eta Eibarko Udalaren eskutik, gure ibilbide profesionala iraultzeko.

Eta zertan datza sortu nahi duzuen enpresa berria?

Tailerretan ezartzeko zerbitzu-ingeniaritza bat sortu nahi dugu, eta LM tekniketan oinarritutako formakuntza gure bezeroei tailerretan bertan eskaini. Horrelako hainbat metodologia erabiltzen dira, eta horien helburuak dira lan-ingurune produktiboagoa eta atseginagoa lortzea; makina aldatzeko denborak murriztea; behar denean behar dena eta behar den kantitatea fabrikatzea eta balio-fluxuaren kartografia. Hori guztia fabrikatutako produktuen kalitatea kontrolatzea eta hobetzea bilatzen duten etengabeko hobekuntzako teknikekin lagunduta.

Nori daude zuzenduta eskaintzen dituzuen zerbitzuak? Neurrira egindako zerbitzua behar duten industria-enpresa txiki eta ertainei, hau da, honako helburu hauek lortu nahi dituztenei: produktibitatea hobetzea; prozesuen eraginkortasuna optimizatzea; gastuak eta entrega-epeak murriztea; erakundeko pertsonak motibatzea; merkatu-kuotak handitzea; bezeroen segmentu



berriak esploratzea; produktuen kalitatea handitzea; produktu edo zerbitzu berriak diseinatzea eta behar teknologikoak definitzea.

Nolako laguntza ematen dizue HELDU programak enpresa-idea abian jartzeko?

Enpresa espezializatuen laguntzarekin, jarraipen pertsonalizatua egiten da. Horretarako, negozio-idea merkataturatu aurretik arrakastaz garatzeko eman beharreko urratsen jarduera-gida bat erabiltzen da, antolamendu-, lege-, ekonomia-, finantza- eta marketin-alderdiak kontuan hartuta. Zalantza barik, oso ondo diseinatuta dagoen programa da.

Berakatz Zopa Txapelketa antolatu du Sarek

Zapatuan aurkeztu zuen Eibarko Sarek Sanandresen atarian, azaroaren 19an, egingo den Eibarko Bosgarren Berakatz Zopa Txapelketa, Arrate Kultur Elkartean. Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko elkarteko ordezkariak aurreratu zuten, txapelketa Untzaga plazan izango da, 11:30ean hasita, eta parte hartu nahi dutenek aurretik eman beharko dute izena, Buenos Aires tabernan. Hiru onenentzat sariak egongo dira: 150 euro eta txapela lehenengo geratzen direnentzat, 100 euro bigarrenentzat eta 50 euro hirugarrenentzat.



Sareko ordezkariak gogora ekarri zuten, 2016ko azaroaren 19an antolatu zuten aurreneko Eibarko Berakatz Zopa Txapelketa, sasoi hartan martxan zegoen #StopDispertsioa / Ibon Etxera preso zegoen Ibon Muñoa eibartarraren aldeko kanpainaren baitan, baina azken bi urteotan ezin izan da egin, pandemiarengatik.

Azaroko azken aurreko asteburuan jokatu den txapelketa aurkeztearekin batera, preso gaur egungo egoera zein den azaltzeko baliatu zuten ekitaldia: “Orain Ibon Muñoa etxean dugu, baina hori bai, bere zigorra, 20 urte luze, azken minutura arte Andaluzia aldean ondo bete eta gero. Presoen egoera ere asko hobetu da, duda barik, baina oraindik gehiegi dira Euskal Herritik kanpo daudenak eta, gradu aldaketekin eta abar, arazo larriak dituzte, salbuespenezko legediaren menpe jarraitzen dutelako. Jakina, asko poztzen gara euskal preso taldetxo bat Euskal Herrira hurreratzen duten bakoitzean, baina oraindik 12 daude Frantziako estatuan eta beste 20 Espainiakoa. Euskal Herrian, berriz, 144 daude, horietatik 19 etxean preso, hau da, baldintzapeko askatasunean, eta beste bi erietxe berezietan”.



Aurreko zapatuan aurkeztu zuten txapelketaren bosgarren edizioa, Arrate Kultur Elkartearen.

Azken aldiko gertakariak gogoan, Jon Kepa Parot eta Jakes Esnal “borroka luze baten ondoren kartzelatik kanpo ikusteak” poza eragin arren, ezin ahaztu gaixorik dauden presoak: “Ibon Fernandez Iradi Lannemezanetik Martutenera ekarri dute, gaixorik dagoelako. Euskal preso bat Frantziako estatutik Auzitegi Nazionala ez den toki batera ekarri duten lehen aldia izan da. Baina ez dugu ahaztu behar, beste 15 preso gehiago bezala, larriki gaixorik dagoela eta, beraz, guztiak etxean egon beharko luketela”.

Salbuespen neurriekin amaitzeko garaia

Bestalde, “Espainiako justiziak Xabier Atristainen eskubideak urratzeko erabili duen zentzugabekeria” dela eta, haserre daude: “Espainiako Auzitegi Gorenak muzin egin zion Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiari. Eta, orain, Auzitegi Nazionalak bertan behera laga du Eusko Jaurlaritzak Atristaini emandako hirugarren gradua, nahiz eta horretarako baldintza guztiak betetzen zituen. Berdin gertatu zaie Mikel San Argimiro eta Aitor Esnaolari”.

Gauzak horrela, euskal presoentzat indarrean dagoen salbuespeneko legediari eusten jarraitzea gogor salatu nahi dute: “Auzi-

Berakatz Zopa Txapelketarako izena emateko eta parte hartzeko baldintzak kontsultatzeko Buenos Aires tabernara joan beharko da

tegi Nazionalak tratamendu-batzordeen eta Eusko Jaurlaritzaren erabakiak geldiarazten ditu. Hori eta salbuespeneko legeria, hau da, Europan ezagutzen ez diren espetxe zigor ikaragarriak betearazteko helburua baino ez duten 7/2003 eta 7/2014 Lege Organikoak mantentzearekin batera, eragotzi egiten du etxera itzultzeko bideari eustea”.

ETAK borroka armatua laga zuela 11 urte eta desagertu zela ia bost bete diren honetan, horrelako salbuespen neurriek “behar beharrezkoak ditugun elkarbizitza, konponbide eta bakea” oztopatu baino ez dutela egiten azpimarratu zuten eta, gauzak aldatu ezean, mobilizazioekin jarraituko dutela argi laga zuten: “Bi urteko hutsunea eta gero urtarri-laren 7an Bilbon egingo dugun bezala, ‘Etxera bidea gertu’ goiburuari jarraituta antolatatu dugu Eibarko Berakatz Zopa Txapelketa ere”.

“Azalaren azpian bizi gara, babes gutxi hainbeste negurentzat”

ALBERTO EGURROLA • Idazlea



Artearen bitartez espresatzeko modu ezberdinak aurkitzen ditu Alberto Egurrolak eta, batzuetan marrazten eta margotzen ikusi badugu, liburu batekin etorri zaigu besapean orain. ‘Hace frio fuera’ da Egurrolaren liburuaren izenburua eta kutsu sozialeko aforismo eta esaldiak batzen ditu bertan.

El Circulo Rojo editorialak kaleratu du Egurrolaren liburua eta autoeditatutako lana da. Ahoz aho nolabaiteko ospea hartu du eibartarraren lanak eta argitaratutako ale guztiak saldu ditu dagoeneko. Baina lasai, bere obra irakurri nahi izanez gero, Juan San Martin Liburutegian aurkituko duzue.

Nondik abiatu zara liburua idazteko orduan?

Deban nengoen margotzen eta, badakizu, pentsatzen hasten zarenean burura hainbat ideia datorkizkizu. Orduan, egin nuena izan zen ideia horiek telefono mugikorrean apuntatu. Era berean, gaupasaren baten ere gertatu zitzaidan ideia batzuk okurritzea eta mugikorrean apuntatzea. Azkenean 86 orriko liburua egin dut, baina 400 orri betetzeko adina ideia nituen apuntatuta. Orokorrean, liburuak oinarri soziala du eta gaiak umorez lantzen ditut. Jendeari behintzat gustatu zaiola uste dut. Batzuek esan didate esaldi batzuk birritan irakurri behar izan dituztela bertan

esan nahi nuena ondo ulertzeko. Beraz, hausnartzeko aukera ematen duela uste dut. Erraz irakurtzen eta ulertzen da, hitz-jokoak egiten ditudan eta esaldiek zentzu bikoitza duten arren.

Oinarri soziala badu ere, gai zehatz bat lantzen duzu ala gauza askoren inguruan jarduten duzu?

Gai askoren inguruan burura etorri zaizkidan go-goetak jaso ditut eta, era berean, gai asko lantzen ditudan arren, bat egiten dute moduren baten. Hori bai, ez dute ordena zehatzik jarraitzen, pintzelada txiki batzuk dira.

Zer esan nahi izan duzu izenburuarekin?

Amaren uteroan gaudenean bero gaude, babestuta, baina mundura agertzen garenean hotza egiten hasten da. Hortik dator ‘Hace frio fuera’ izenburua. Gogoeta horretatik tiraka, zera diot liburuan: azalaren azpian bizi gara, babes gutxi hainbeste negurentzat.

Nondik datorkizu idazteko grina?

Idazten hasi baino lehen, liburu asko irentsi ditut. Bizitzan zehar denbora libre asko edukitzeko aukera



izan dut eta denborarik gehiena margolaritzari, marrazkigintzari eta literaturari eskaini diot. Irakurketak betidanik liluratu egin nau.

Zer irakurtzea gustatzen zaizu gehien?

Denetik. Nobela beltzak seriean irakurtzen nituela esaten nuen lehen, adibidez. Etxean liburuak daude toki guztietan. Bestetik, liburutegira joateko ohitura handia daukat. Esan beharra dago liburutegiak demaseko zerbitzua eskaintzen duela herrian. Beti daude laguntzeko prest, liburutegiko liburu guztietara sarbidea duzu etxetik, demaseko katalogoa du, liburuak eskatu ditzakezu (60 eskaera inguru egin ditut eta beti ekarri didate eskatutakoa)... Egiten duten lana goraiatu beharra dago.

Irakurle sutsua izan arren, idaztea beste kontu bat da. Beti izan duzu idazteko erraztasuna?

Baietz esango nuke. Beti eduki dut idazteko joera eta, esan bezala, liburu honen orrialde kopurua bikoiztu ahal izango nuke nahi izanez gero. Bestetik, aforismoez gain, kontakizunak eta ipuinak ere idatzi izan ditut.


Liburuan zer sartu erabaki behar izan zenuenean, nola egin zenuen?

Oso erraz! Amak, arrebak eta hirurok aforismo eta esaldi guztiak irakurri eta aukeraketa egin genuen. Batzuk kanpoan geratu dira, baina beste momentu baten berreskuratu ahal ditut. Horrela, batzuk aukeratu arren, beste batzuk aukeratu ahal genituen lasai-lasai, kalitate aldetik antzekoak direlako.

Beste libururen bat argitaratzeko asmoa duzu?

Bai, baina jendeari espazioa laga nahi diot eta ez ateratzea liburu bat bestearen atzetik. Izan ere, liburuak uztailean jaso nituen eta Debako Arkatza liburu-dendara eraman nituen. Bertako emakumeak liburuak irakurri eta gustatu egin zitzaion, eta handik pasatzen ziren eibartar guztiei gomendatzen zien. Oso ondo saldu zen hilabete eta erdian. Uste dudana da irakurtzeko ohitura duen jendeari gustatu zaiola liburuak batez ere.

Liburuaren arrakasta ikusita, ez duzu pentsatu gehiago argitaratzea?



“Idazten hasi baino lehen, liburu asko irentsi ditut. Irakurketak betidanik liluratu egin nau”

“Amaren uteroan gaudenean bero gaude, babestuta, baina mundura agertzen garenean hotza egiten hasten da”

Bai, baina ez dakit. Bidea alderantziz egin dut agian. Izan ere, lehenik eta behin hedabideengana jo beharko nuke eta gero saldu (barreak). Pozik nago egindakoarekin eta liburua irakurri nahi duenak liburutegian aurkitu dezake. Hau ez dut dirua irabazteko egin, jendeak egiten dudana ikus dezan baizik.

Margotu, marraztu eta idatzi egiten duzunez, zerk bultzatzen zaitu gauza bat modu batean edo bestean egitera?

Jakin-mina duen pertsona naiz, esponja bat bezala gauzak xurgatzen ditut eta, gero, kanporatu egin behar ditut. Adibidez, liburuaren irabaziekin tablet zoragarria erosi dut eta tabletarekin margotzen hasi naiz. Gauza berria da niretzat. Eta begira, zerbait aurreratuko dizuet: hurrengo liburuaren izenburua ‘Hace frío dentro’ izango da eta azalerako irudi berdina erabiliko dut, baina kolore hotzekin. Tabletarekin egin dut hori.

Aforismoen bitartez gauza asko esaten dituzu oso hitz gutxitan. Sinplea badirudi ere, seguruena zaila izango da hori egitea. Moduren batean landu duzu aforismoak sortzeko teknika?

Bizitzan zehar hainbeste irakurri dudanez, uste dut esaldiak burura bakarrik etortzen zaizkidala. Batzuk irakurriko dizkizut, adibide batzuk edukitzeko: “Non dago iluntasuna argia itzali aurretik?”, “Aurten irabazitakoak aurreikusitakoa gainditzen du, baina nori irabazitakoak?”, “Beti zuzena dena egiten baduzu, asko ez duzu gozatuko”. Bitxia da, baina irakurle bakoitza gogoeta batekin geratzen da eta, eurak ezagututa, pentsa dezaket zergatik gustatu zaizkien gogoeta horiek gehien.

Autoeditatutako liburua izanik, nolako prozesua bizi izan duzu liburua zuk zeuk editatzeko orduan?

El País egunkariaren kontrazalean ikusi nuen editorialaren iragarkia eta horrela jarri nintzen editorialarekin harremanetan. Oso ondo moldatu naiz eurekin eta arazoren bat egon den momentuan beti egon dira laguntzeko prest. Espainiako autoediziorako editorial nagusiena da eta oso jatorrak eta adeitsuak izan dira beti. Erosoa izan da eurekin harremanetan jartzea, telefonoz eta Internet bitartez egiten genuen berba, eta ez da arazorik egon.

EZTEIAK



GEHIGARRIA

44. zenbakia. 2022ko UDAZKENA

"TIRO PITXOI JATETXEA"
Arraten
 - Eguneko menua
 - Asteburuko menua
 - Menu bereziak
 - Karta...
 - Ezkontzak
 - Ospakizunak...
TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59

ROSANA
ILEAPAINDEGIA
943 120624
 URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

Bitxitegia
J. Salaberria
 Errebal, 22 943 20 20 79
 RELOJERIA
 SALABERRIA

YOKASTA Ibarkurutze, 7
 Tel. 603 344 258
 Manikura-aretoa
MANIKURA
 5 €tik hasita
PEDIKURA
 10 €tik hasita
 zure azazkatak
 zure espreziabiltza

Izadi
LORADENDA
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

ROCA
 CALBETON, 16 TEL. 943 20 80 06
 -EIBAR-
Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!

Nolakoak izango dira 2023ko EZKONTZAK?

Pandemiaren garai txarrenak gainditu eta gero, bikote asko ezkontzera animatzen ari da. Ospakizun xumea izan arren, argi dago protokolozko urrats batzuk behar dituela, eta urrats horiek ezin dira falta; esate baterako, ezkongaiantzako lekua, dekorazioa, janaria eta musika. Era batera ala bestera, helburua bi ezkontza berdin ez gotea da. Beraz, irudimena askatzea izango da onena!



2023an ezkontzeko asmoa badaukazue, gogoratu egun berezi hori modu profesional batean antolatzen lagunduko dizueten zerbitzuak aurkituko dituzuela Eibarren bertan eta inguruan, urrutira joan gabe: ileapaindegiak, estetika zentroak, bitxitegiak, jatetxeak, argazki-dendak, inprentak, lore-dendak... Esku onetan egongo zarete.

Pandemiak zerbait irakatsi badigu, gure bizitzetan benetan garrantzitsua eta funtsezkoa dena baloratzea da; horregatik, gonbidatuen zerrenda egiterakoan, zuen ezkontza-egunean benetan falta ezin diren pertsonengan pentsatu behar duzue.



Emaztegaiendako soinekoetan goi mailako joskintza-aren filosofiaren aldeko joera ikusiko dugu. Aire freskoa bilatuko da, erromantizismoa ahaztu gabe. Soinekoek emakumearen edertasuna nabarmenduko dute beste edozein gauzaren gainetik. Horretarako, diseinatzaileek neurria egindako soinekoak egiteko beharra azaltzen dute, xehetasun bakoitza zaindu eta neurtzeko. Patroi-gintzako oinarri on batetik abiatuta, bordatu, oihal, tule eta gardenkiek protagonismoa bereganatuko dute.

Bitxiak osagarri protagonista

Garrantzitsuena da bikoteak imajinatzen duten bitxi hori jantzi ahal izatea, horregatik diseinatzen dute ez-konkideei buruzatzen zaien edozer, aliantzak pertsonalizatetik bakoitzarentzat bitxi bakarra sortzeraino. Dena da posible. Gainera, 2023an material nobleen kalitatearen aldeko apustua egingo dela adierazi dute: urre zuria, urre arrosa, urre horia, platinoa, diaman-teak eta harribitxiak.

CAPi Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

UltraLift HIFU
 Intentsitate handiko ultrasoinu fokalizatua

LIFTING KIRURGIKOAREN BENETAKO alternatiba

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA
ZELULITISArekin ERAGINKORRA DEN TEKNOLOGIA BAKARRA

ZONALDEAK
 izterrak / ipur-masailak
 besoak / sabelaldea

Azalarren ELASTIKOTASUNA

F. Calbeton, 1 - 1. ezk.
 943 20 70 47

castaño peluqueros
 castanopeluqueros

Aurrez aurreko zita

CASTAÑO

Loreak edonon

Zelan ulertu horrelako ospakizun berezi bat lore barik? Loreak ezinbesteko elementu dira edozein ospakizunetan eta hurrengo denboraldian magia betetako "artisau konposizioetan" ikusiko dira. Non jarri loreak? Emaztegaiaren lore-sortan, gonbidatuentzako oparixoetan, senargaien jaken papar-hegalean, burukoetan, mahai erdian, dekorazio eseki gisa...

Edertasun naturala

Aurpegiari dagokionez, edertasun naturalari emango zaio lehentasuna 2023an. "Emakume orok eder sentitu behar du, bera izateari uko egin gabe". Egun horretan distiratsu sentitzeko, makillajea edo orrazkera ez ezik, aurreko tratamenduak ere hartu behar dira kontuan.

Banketea

Produktu jasagarriak ere funtsezko baldintza izango dira menua egiteko. Tokiko eta hurbileko jakiak izango dira oturuntza bikainak egiteko erakargarri nagusiak, sustraiak omentzeko. Ezkontza-menuaz ari bagara, ezin dugu ahaztu eztei-tarta, pertsonalizatzeko aukera paregabea daukagu-eta, ezkongaien giroarekin eta estiloarekin bat etorritz.

Ospakizuna

Geroko ospakizunei dagokienez, zuzeneko kontzertuak dira oraindik ere ezkongaien gustukoak dituztenak. Musika-bandekin bai DJekin, zuzeneko musikak aparteko energia ematen die bertaritzen diren gonbidatuei.



Tradizioak dio ezkongaien bals klasikoarekin irekiko dutela eztei-dantza, baina askok aukeratzen dute ezkontzetarako koreografia askoz ere originalagoak egitea. Gero eta bikote gehiagok parte hartzen dute dantzaldian zerbait originala eta dibertigarria egiteko: filmezietarako koreografiak, bachata erritimoak, saltsa, flashmob gonbidatuekin batera... Lotsa alde batera laga eta animatu zaitezte! Egun ahaztezina izango da!



BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE EZKONTZA
ZURE NEURRIRA!



Etorkinen bidelagun momentu zailenetan

Jaioterritik milaka kilometrotara, galduta, nora jo jakin ezinik, herriminarekin, familiarengandik urrun. Arlo asko dago migrazioaren atzean eta, gehienetan, migratzaileek inongo laguntzarik gabe egin behar izaten diete aurre egoera gogor hauei, tresnarik izan gabe. Horretarako, Udaleko Gizartekintza arloak Bidelagun zerbitzua du martxan, Eibarren bizi diren etorkinei hainbat gairen inguruan behar duten babesa emateko.

Bidelagun laguntza psikosozialeko zerbitzua da eta gizarte-langileek eta eskuhartze komunitarioko teknikariek bideratzen dute. Horrela, arreta espezializatua eskaintzen zaie migrazio-prozesua modu traumatikoan jasaten ari diren familiei (maite dituztenengandik bereizi izanagatik, errealitate berrira egokitzeko zailtasunarengatik, bakardadeagatik, inkomunikazioagatik...).

Udalak Egintza elkarteari esker eskaintzen du Bidelagun zerbitzua eta Silvia Peñas Egintzako Arreta Psikosozialaren eta Immigrazio arduradunak kontatu dizkigu zerbitzuaren nondik norakoak. Etorkinek bizi dituzten arazo eta zailtasunak mota askotakoak izanik, Bidelagunek hiru programa ditu martxan, euren arazoetara egokitzeko asmoz.

Lehendabizi aipatuko dugun programa etorkinentzako kultura arteko arreta psikosozialeko zerbitzua da. “Zure herrialdetik etortzea ez da beti samurra izaten. Ibili beha-



rreko bideak baditu ustekabeko zatiak. Baliabide honen bitartez aditu talde batek eskaintako laguntza psikosoziala aurkituko duzu”, diote zerbitzuaren sustatzaileek.

Programa hori “norbere, bikotearen edota senitarteen arrazoiak direla-eta, une zaila eta korapilotsua zeharkatzen ari diren Eibar-ko pertsona migranteei zuzenduta dago”, argitu digutenez. Baina, nolako egoerak hartzen ditu bere baitan programa horrek? Dolu egoerak (adiskideen galerak, senditik bereiztea...), bakardade-sentimenduak, heltze-lekura egokitzeko eragozpenak (klima, hizkuntza, jateko ohiturak, komunikatzeko moduak...), atzerritar izateari berari dagozkion administrazio-tramiteei loturiko estresa, bikote-arazoak eta senitarteen arteko arazoak, besteak beste.

Sorterrira itzultzeko laguntza

Gaur egungo arazo sozioekonomikoengatik euren sorterrira itzultzea erabakitzen duten edo hori egitea



Bidelagun zerbitzua Udalak etorkinei ematen dien doako arreta zerbitzua da.

hausnartzen ari diren Eibarren bizi diren etorkinek ere laguntza jasoko dute Bidelagun programaren bitartez.

Hala nola, sorterrira itzultzeko, bakoitzaren egoera aztertu ondoren itzultzeko plana egiteko, sorterriko bizimodura berriz egokitzeko, eta bestelako zalantzak eta galderak argitzeko aukera izango dute zerbitzu horren bitartez.

Familia berriz elkartzea

Migratzaileen kasuan normala izaten da lehenik eta behin familiako kide batek migratzea eta, ondoren, posible denean, beste kideak batzea. Hilabeteak pasatzen dira batzuetan, urteak beste kasu batzuetan eta, Bidelagun programaren sustatzaileek diotenez, “ez da batere samurra izaten afektua sorterritik hainbeste distantziara bizitzea”. Euren esanetan, “famiak berriz elkartzeak erronka eta esperientzia berri ugari bizitzea dakartza”.

Horregatik, familia berriz elkartzen den momentuan denak prest

egon daitezen, Bidelagunek laguntza eskaintzen die etorkinei. Baina nola? Batetik, familia gizarteratzen laguntzen dute, batez ere etorri berriak diren kasuan (eskolan matrikula egin, hezkuntza-ereduei eta osasun ereduari buruz informazioa eman...). Bigarrenik, etorkin askok seme-alabak jatorriko lurraldean lagatzen dituztenez, urrunetik guraso izaten ikasten laguntzen diete eta, era berean, seme-alabei afektua ematen. Hirugarrenik, gaur egun eskura dugun teknologiak lagunduta (bakoitzak ahal duen neurrian), urrunetik familiarekin komunikatzeko modu berriak aurkitzen laguntzen diete Bidelagunek, eta familia berriz elkartzen denean ere komunikazioa hobetzeko zerbitzua eskaintzen diete. Laugarrenik, banaketaren ondorioz familiako arau edo neurri batzuk kaltetuta geratzen direnez, horiek berriz definitzen laguntzen diete. Bosgarrenik, beste herrialde batera migratzeagatik eratorzen diren aldaketei aurre egiten laguntzen diete (klima, hizkuntza,

janari-ohiturak, komunikatzeko moduak, lagunengalerak, gizarterharreman berriak...). Eta seigarrenik, artatutako pertsonen integrazioa bermatzen dute eskura dituzten zerbitzuekin harremanetan jarritz.

Esan bezala, zerbitzua familiarekin berriz elkartu nahi duten edo elkartu berri diren Eibarko etorkinei zuzentzen zaie. Horrela, Bidelagunek norbanakoei, bikoteei, familiei eta taldeei (emakumeak, nerabeak, adin txikikoak...) eskaintzen die esku hartzea eta aholkularitza-zerbitzua.

Doako arreta zerbitzua

Bidelagun zerbitzua jasotzeko Udaleko Gizartekintza zerbitzura jo behar dute etorkinek, Bista Eder kaleko 10. zenbakiko 3. solairuan (Portalea eraikinean). Bertan doako arreta jasoko dute, baina aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko dute 650 01 79 49 edo 943 70 84 40 telefonoetara deituta edo ikas@egintza.com posta elektronikora idatzita.



Agur epaitegi zaharrari. EKHI BELAR

Aitor Montero eibartarrak Open EasyRace txapelketa irabazi du

Aurreko asteburuan Alcañizen jokatutako Motorland Aragon postuan azkenean bigarren postuan helmugaratuta, Aitor Montero motorzaleak Open EasyRace txapelketa bereganatu du. Sei puntu besterik ez zituen behar amañarrak txapela janzteko eta soberan lortu zituen bigarren postu horrekin. Hala ere, Monterok ez du denboraldi erraza izan, hainbat eroriko izateaz gain, Nafarroako lasterketan ez baitzuen punturik bereganatu. Barixakuko entrenamendu libreetan motorra prest izan zuen Alberto Villares teknikoak eta Jaime Lopez mekanikoak egindako lanari esker. Zapatuan, bestalde, lehenengo kronoan Aito-



rrek polea lortu bazuen ere, bigarrenen galdu egin zuen postu hori 50 milesimengatik. Behin lasterketan sartuta, eibartarrak atzetik aurrerako egin zuen, zazpigarren itzulian lehenengo postua eskuratzearino, amaieran bigarrenarekin konformatu behar izan bazuen ere.

Betiko lez, Monterok aldamenen izan dituen guztiak gogoratu nahi ditu txapela lortu duen honetan, Aitor Montero Team-ek eta Team ADN Zero-k osatzen duten tandem batez ere. Ramon Izquierdo, Amaia Heras eta Itsaso eta Eneritz Montero dira, lehen aipatutako Villares eta Lopezekin batera, horietako batzuk.

Asteburu oparoa Mecalbe Eibar Eskubaloiko lehen talde bientzat

Gizonezkoen taldeak 36-32 irabazi bazion Ipuruan Ereintza Aguaplast-i 1. Maila Nazionaleko partiduan, Ohorezko Zilarrezko mailako partiduan emakumezkoen taldeak garaipen ikaragarria eskuratu zuen Zarautzen, sailkapeneko goi aldean dagoen Aialari 27-28 gailenduta. Bi puntu baino gehiago lortu zituzten Andoni Perezek zuzentzen dituen neskek, hurrengo partiduetara ere konfiantza berreskuratzeko aukera eskaintzen dietelako asteburuko emaitzak. Orain atzetik duten Loyola taldea jasoko dute armaginek Ipuruan datorren astean, bolada onari jarraipena emateko asmoz, baina zentzuz jokatzeko erne.

Gizonezkoen taldea, bestalde, 13 punturekin sailkapenean laugarren bada ere, Zaragozako liderrek Trapagan galdu eta gero lehen postu hori puntu bakarrera dute orain armaginek. Nagusi izan ziren Fernandezoren mutilak hasierako 8-1eko

partzialak emandako lasaitasunari esker eta, azkenean pixka bat lasaitu baziren ere, etxekoek zoragarri eutsi zioten markagailuari. Ia betiko legez, Mikel Zuloaga izan zen goleatzaile onena, 9rekin, eta lehen

postuan jarraitzen du goleatzaileen sailkapenean. Casademont Zaragoza orain arteko liderra izango da hurrengo aurkaria eibartarrentzat; partiduzaila, beraz, Fernando Fernandezaren mutilentzat.



Ederki gozatu zuten Eibar Eskubaloikoek ezustean irabazitako partiduen amaieran.

Astelenak atearak zabalduko ditu gaur obrak amaituta

Astelena frontoiko lanak zirela-eta, orain arte etxeko partiduak inguruko herrietako frontoietan (batez ere Mendaron) jokatu behar izan dituzte Deporrek pilotariek, baina amaitu da ibilbide hori. Astelena bueltatuta, Gipuzkoako Txapelketako hiru partidu izango dira gaur 18:30ean hasiko den jaialdian: lehenengoko biak buruz-burukoak izango dira, infantil mailan, eta hirugarrena binakakoa, jubeniletan. Hasteko, Aratz Amillategik Bergarako Montalboren aurka jokatu du eta, jarraian, Aleix del Rey-k Zestoako Alberdi izango du aurkari. Jaialdiarekin amaitzeko, Ibarrek eta Caramanzanak osatutako bikoteak Larrañaga-Lizaso Azpeitiakoari egingo dio aurre. Ez da gaurko asteburu honetako jaialdi bakarra, domekan, goizeko 11:30ean hasita, senior mailako eskuz binakakoa ere izango delako. Hor Azkargorta-Conde etxeko bikoteak Ataungo ordezkariak hartuko ditu Katedralean.



Kalamuako Manu Agirrek laga gaitu azken unera arte judoaren aldeko lana eginez

Aurreko asteko eguenean hil zen gure herriko judoan aitzindari izandako Manu Agirre. Aurten bete ditu 50 urte berak sortutako Kalamua Judo Klubak eta, gaixorik bazegoen ere, azken unera arte jarraitu izan zuen ekialdeko arte martzialen aldeko bere jardunean. Horrela, justu aurreko asteburuan Eibarrek hartu zuen Espainiako Jiu-Jitsu Koparen zazpigarren edizioa Ipurua kiroldegian. Euskal eta estatuko judoan erreferentia izan zen Manu Agi-

rrere, hainbat federazioetako zuzendaritzetan jarduteaz aparte. Maisuen-maisu, judoko zortzigarren dan-a ere bazen eta baita olinpiar eta nazioarte mailako epaile ere. Horrela, parte hartu zuen Bartzelonako Olinpiadetan eta ia urtero joaten zen Tokiora, bertako Kodokan Judo Institutuen ikastaroak egiteko. Mende erdian egindako lanaren fruitua da Eibar judoaren mapan kokatu izana, Espainia zein nazioarte mailan.

Sarrerak salgai hilaren 20an jokatu den Eibar-Alaves partidurako

Hurrengo domekan, hilaren 20an, 19:00etan hasita Ipuruan jokatu den Alaves liderarren aurkako

partidurako sarrerak astean zehar abonatuentzat salgai egon badau- de ere, astelehenetik aurrera beste

guztiek zabalduko zaizkie sarrerak erosteko aukera hori. Abonatu- kasuan sarrerak 20 eurotan dau- de. Bestelakoentzat jarritako pre- zioak honakoak dira: erdiko zo- naldean, 35 euro; A zonaldean, 30 euro; B zonaldean eta hondoak, 25 euro; eta umeentzat, 15 euro. VIP sarrerak, bestalde, 90 eurotan ipini dira salgai. Azkenik, Alaves klubari 306 sarrera bidali zaizkio, guztiak 20 eurotan, eta prezio bera izatea adostu dute itzulirako sarreretan, Eibarrek Gasteizen jokatu duen partidurako.



Eibar FT-ko jokalariek Las Palmas-en aurkako partidua ikustera joandako zaletuekin.

Eibar FT-k gero eta sendoago Federazioko 1. Mailako lidergoan

Goiko postuetako aurkariekin jokatutako partiduetan ere talde sendoa dela erakutsi du Eibar FT-ko emakumezkoen lehen taldeak, jokatzeke modu gero eta zehatzagoarekin batera emaitzek ere taldeari lagundu diotelako. Yeray Martinek zuzentzen duen taldeak azken jardunaldian Bartzelona haundiarren bigarren taldeari irabazi zion Unben jokatutako norgehiagokan (2-0) eta sailkapenaren gorengoan jarraitzen du, Deportivo Abanca hiru puntura duela -aurreko jardunaldian eibartarrek berdintzea

lortu zuten A Coruña- eta Osasuna eta DUX Logroño laura. Atzetik jarraitzen diote Cacereño, Bartzelona B, Granada, Oviedo Moderno eta Espanyol, euretako batzuk aurretik 1. Mailan jokatutakoak. Hurrengo erronka Espanyolen zelaian izango dute eibartarrek eta “ez da neurketa erraza izango”. Taldeak zortzi partidutan hiru gol bakarrik jaso ditu, horrek erakusten duen atzeko lanean duen fidagarritasunarekin, eta horregatik hobeto ezin baliatu izan ditu orain arte sartutako hamabi golak.



Ohorezko Mailako Eibar Rugbyk gertu izan zuen lehen garaipena

Aurreko zapatuan Unben jokatutako Ohorezko Mailako norgehiagokan, Eibar Rugbyk 22-24 galdu zuen Pozueloko Olimpicoarekin eta denboraldi honetako lehen garaipena izan zitekeena ez zen gauzatu eibartarrentzat. Une honetan sailkapeneko azken postuan daude Cristina Guntinen neskak, bost par-

tidu galduta eta bi puntu bakarrik eskuratuta. Lehen zatiaren amaieran 5-12ko emaitza erakusten zuen markagailuak; bigarren zatian eibartarrak markagailuan aurretik jarri ziren, baina azken orduko mardildarren entseguak erabaki zuen neurketa. Zapatuan bertan aurretik jokatutako partiduan emakumez-

koen bigarren taldeak ere galdu egin zuen Hernanirekin (42-0). Asteburu honetan Euskal Ligako talde biek jokatuko dituzte, zapatuan bien kasuan: nesken Arrasate-Eibar-ek Bera Bera hartuko du Arrasaten 12:30ean eta mutilen lehen taldeak La Riojaren zelaia bisitatuko du 17:00etan.

688 62 76 89
ESKERTZAK ETA URTEURRENAK
 943 20 09 18
 Urkizu, 11
 publikitate@etakitto.eus

FUNEUSKADI
 Grupo Arce

FUNEUSKADI MUGICA
 Funeuskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO HERNANIRE
 EGOITZA

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixipin, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuaiko bulegoa: Marqués de Valdespina, 15

Eibar - Elgoibar - Ermua - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao
 Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

EUSKARALDIA

HITZES EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra



**JOANES
LASAGABASTER**
Ahobizi

Egunerokotasunean euskaraz egin nahi dudan jendearekin euskaraz egiten hasteko aukera polita da Euskaraldia. Ze ez da beti erraza izaten baten batekin bat-batean euskaraz hitz egiten hastea eta besteak jarraitzea. Eibarren badirudi gazteleraz kutsatutako burbuila batean bizi garela, asko hitz egiten da gazteleraz. Lagunei ere esaten diet, nola liteke euskaraz jakitea, txikitatik erabili izan dugun hizkuntza izatea eta gaur egun gure arteko harremana gazteleraz izatea? Euskaraz egiten ez badugu ze euskaldun mota izango gara? Horregatik pentsatzen dut Euskaraldia ariketa interesgarria dela ohitura horiek aldatzen joateko.



ELI MARTIN
Belarriprest

Aurrekoan ezin izan nuen parte hartu kanpoan bizi nintzen-eta, baina aurtengoan gogotsu eman dut ize-na. Belarriprest izango naiz. Euskara ikasi nahi dut euskaraz bizi nahi dudalako eta horretan dihardut, euskara ikasten euskaltegian. Etorkizunean Ahobizi izatea nahiko nuke. Hizkuntza bat ikasteko hitz egin behar da, hizkuntza erabiltzea oso inportantea da. Euskara uste duguna baino jende gehiagok ulertzen du, baina, batzuetan, lotsagatik edo ez dugu egiten. Jendeari aukera eman behar zaio euskaraz berba egiteko eta Euskaraldia aukera paregabea da horretarako.



ESTHER ANITUA
Belarriprest

Aurrekoan ere parte hartu nuen, baina aurtun rola aldatzea erabaki dut. Ahobiziren rola ez nuen ondo bete eta, horregatik, aurtun Belarriprest moduan jardutea erabaki dut. Euskaraldia oso esperimentu interesgarria iruditzen zait, baina gehiago iraun beharko lukeela uste dut. Horrez gain, bakoitzak bere rola ondo betetzea oso garrantzitsua da.



SARA LAMAS
Ahobizi

Urteak daramatzagu bikotea eta biok euskara ikasten eta ohitura horrekin jarraitzeko helburuarekin eman dugu aurtun ere izena Euskaraldian. Ariketa interesgarria iruditzen zait eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta euskara zabaltzeko beharrezkoak dira horrelakoak. Ingurura begiratzerakoan ikusten dudana da Eibarren ohitura handia dagoela, leku publikoetan batez ere, gazteleraz egiteko: lehenengo hitza, agurra... Eta gazteen artean ere gero eta gutxiago egiten dela iruditzen zait. Gauzak aldatzen ari dira, baina oso poliki. Ohiturak alda daitezke, baina horretarako asmoa eta gogoia behar da. Ez gara konturatzen gure hizkuntza galdu egin daitekeela; guk ez badugu egiten, zeinek egingo du ba!



PERU ALBERDI

Ahobizi

Euskaraldiaren aurreko edizioek balio izan zidaten nire hizkuntza-ohiturak aztertzeko eta konturatzeko joera handia dudala, eta dugula, oro har, gaztelerara jotzeko, batez ere espazio informaletan, hau da, potoan, lagunekin, eguneroko elkarrizketetan... Espazio formalagoetan, aldiz, bileretan edo klasean, esaterako, edo elkarrizketa serioagoetan askoz gehiago erabiltzen dut euskara. Orduan, pentsatzen dut Euskaraldiaren edizio hau aukera polita izan daitekeela hausnarketa hori denok egiteko, eta ikusarazteko. Eibarren, nahi izanez gero, posible dela euskaraz bizitzea. Euskaraz hitz egiteko aukera asko eskaintzen ditu gure herriak eta euskaraz bizitzea norbere autua da.



JOSUNE GARRO

Belarriprest

Aurreko Euskaraldian ere parte hartu nuen eta esperientzia polita izan zen. Espero ez nuen jende askorekin euskaraz hitz egiteko aukera izan nuen eta oso atsegina izan zen jendea hain gogotsu ikustea. Errepikatzeko gogoia daukat. Belarriprest moduan oso eroso sentitu nintzen eta aurten horrela jarraituko dut.



FATIMA SRASSI

Belarriprest

2020an bezala, aurten ere Belarriprest bezala parte hartuko dut, eta saiatuko naiz euskara gehiago egiten. Euskaraldia ariketa ona iruditzen zait euskaraz hitz egiteko lotsa kentzeko eta euskarari bultzada handiago emateko. Aurrekoan oso ondo moldatu nintzen Belarriprest rolarekin eta oraingoan ere ziur nago horrela zango dela.



GORKA GUENAGA

Ahobizi

Uste dut gu guztion erantzukizuna dela, eta uneoro egin beharreko lana. Bakoitzak dagokion neurrian hartu beharko luke parte. Euskaraldiaren txaparen bitartez kale presentzia izatea beharrezkoa da euskararen normalizazioa kalean sortzen joan dadin. Bestalde, arreta jarri nahiko nuke lehenengo edizioan Eibarren izan genuen figuran, Bihotzgoxo. Nahiz eta jakin ez euskara maite dute, eta ahal duten neurrian aurtengo edizioan parte hartzera animatu nahiko nituzte. Eta ideia bat antolatzaileentzat: txapaz gain, hurrengo edizioetarako telefonoaren atzeko aldean jartzeko pegatina atera dezatela.



Juan San Martinen obra osoa digitalizatu dute

Juan San Martinen obra osoaren digitalizazioa aurkeztu zuten astelehenean Portalean Harkaitz Millan Gipuzkoako Kulturako diputatuak, Bingen Zupiria Kulturako sailburuak, Jon Iraola alkateak eta Lorea Agirre Jakin Fundazioko zuzendariak. San Martinen senide eta lagunak ere bertan izan ziren.

Eibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Jakin Fundazioaren lankidetzaren bidez gauzatu ahal izan den proiektuari esker, Juan San Martinen obra osoa (1.829 obra, 14.615 orrialde) Interneten eskuragarri ipini da. Jakin Fundazioa arduratu da digitalizazioaz eta lanak bere webgunean kontsultatu daitezke.



Bihar banatuko dituzte Film Laburren Jaialdiko sariak

Gaur ikusi ahal izango dira XXIII. Asier Errasti film laburren jaialdirako aukeratu dituzten azken lanak, 20:00etan Coliseo antzokian. Astelehenean hasi zen Plano Corto elkarteak, Udalak lagunduta, antolatzen duen jaialdia. Sari-banaketa ekitaldia, berriz, bihar izango da, 19:30etik aurrera, Coliseo antzokian eta orduan ezagutuko dira aurtengo edizioko film irabazleen izenak.



Zigiluak zizelkatzeko eta estanpazio tailerrak

Azaroan beste bi ikastaro antolatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkartek Illunabarrian programaren barruan: martitzenean (azaroak 15) zigiluak zizelkatzen ikasteko tailerra egingo da, eta azaroaren 22an, berri, aurreko saioan egindako zigiluekin estanpazioak egiteko tailerra. Datorren astekoan parte-hartzaileek euren zigilua sortuko dute, kautxuzko zizelkatzearen teknika erabiliz. Saioa 18:00etatik 20:30era izango da. Eta, bigarren tailerrean, aurreko saioan egindako zigiluekin paperean eta oihalean estanpatzeko teknika ikasiko da, aplikazio desberdinak, garbiketa... eta hainbat gomendio ere emango dira. Tailer hori laburragoa izango da (18:30etik 20:30era). Biak egingo dira ...eta kitto!-n. Izen-ematea zabalik dago (astelehenera arte), 943200918 telefonoan edo elkartea@etakitto.eus helbidean. Izen-emateak 10 euro balio du (egunean bertan ordainduko da), eta doakoa da ...eta kitto! Euskara Elkarte baskideentzat.



Robotika tailerretan parte hartzeko izen-ematea

Robotika ikastaroak antolatu ditu Udalak Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Tailerrak azaroaren 26an eta abenduaren 3, 10 eta 17an izango dira, Jazinto Olabeko ludotekan (LH 3-4, 16:00etatik 18:00etara; eta LH 5-6, 18:00etatik 20:00etara). Izen-ematea azaroaren 21era arte egin daiteke, Udalaren web orrian.



Sanandresak iragarriko dituen kartela aukeratu dute

Murtziako Ruben Lucas Garciak irabazi du Sanandresetako kartel-lehiaketa, “Emakumea” izenburuko lanarekin. Umeen mailan, Jare Arzuaga Ibarretxe (“Gora gure jaiak eta Untzagako harmailak”) eta Maitena Oruña Roiteguiaren (“Jaietarako prest!”) saritu dituzte. Sari-banaketa azaroaren 30ean, San Andres egunean, izango da 13:00ean Untzagan.



Bakailao-txapelketetarako izen-emateak zabalik

San Andres jaien harira urtero egiten den Eskola arteko bakailao-lehiaketa azaroaren 20an izango da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak elkartuko dira Erreal Plazan, 10:30etik aurrera. Izen-emateak formulario bidez egin beharko dira, Udalaren webgunean. Bestalde, azaroaren 27an, San Andres XXIX. Bakailao Lehiaketa egingo da Untzagan, 11:00etan. Bertan parte hartu ahal izango dute herriko elkarteek zein koadrilek. Astelehenera arte eman daiteke izena, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta. Hiru onenei banatuko dizkiete sariak.



AEK euskaltegikoez Urkin ospatuko dute Gaztaiñerre

Aurten ere Gaztaiñerre ospatuko dute AEK euskaltegikoez. Astelehenean Paloma tabernan elkartuko dira, 19:00etan, eta handik Urkira joango dira, trikitilariekin, auzoan kalejiran ibiltzeko eta euskal kantak abesteko. Afari-merienda Rioja tabernan egingo dute oraingoan, 20:00ak aldera. Eta, amaieran, arratsaldea girtzeko, lehiaketa erraza prestatu dute: “Sosolako gazta baten pisua asmatzen duenak, edo pisura gehien hurbiltzen denak, irabaziko du (taldean nahiz banaka har daiteke parte). Irabazleek Sosolako gazta, bi sagardo botila eta gaztainak eramango dituzte etxera”. Beti bezala, deialdi irekia egin dute, nahi duen edozeinentzat.

Transexualitateaz aritzeko hitzaldia antolatu du Ikastenek

Transexualitateari buruzko hitzaldia antolatu du Ikasten elkarteak eguenerako (hilak 17), 10:00etatik 12:00etara, Armeria Eskolan. Naizen elkartetik etorriko dira gaiari buruz berba egiteko. Ekimena ohiko programazioaren baitan antolatu dute eta, beti bezala, sarrera librea izango da.

Pilotari buruzko liburu berria




Jose Agustin Larrañagak euskal pilotaren inguruan urteotan egiten diharduen lanaren fruitu berria dago kalean: 514 orrialde dituen liburu mardula, argazki as-

korekin, “tartean Txikitoren aurka jokatu zuten 103 pilotariarenak, euren biografia eta guzti”. Hori gutxi balitz, liburuak sasoi hartan zeuden frontoi guztiak ere jasotzen ditu barnean.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		5			3	
7		9	3			4
			6		5	1
	8	9		6		4
	4	1		7	2	
4	8		2			
3				8	1	2
	2			3		




soluzioa

**S
U
D
O
K
U**


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		6		8	3	4	
3	8			9			5
	7			6			
2			4				9
		9		3	6		
7				2			3
				5			1
4			9				7
	5	1	6			8	

soluzioa



irteera



L
A
B
I
R
I
N
T
O
A

sarrera

AURKITU 6 EZBERDINTASUNAK



Azaroak 11/17

BARIXAKUA 11

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:30 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Torrekuako parkea.

BAKARRIZKETA

18:00 "Villana", Irantzu Varelaren eskutik. Portaleko areto nagusia.



FILM LABURRAK

20:00/21:30 XXIII. Eibarko Film Laburren Jaialdia. Coliseo.

ZAPATUA 12

JARDUNALDIA

10:00/13:30 "FE.VI.-ren lorpenak eta erronkak", Altzoa emakume alargunen elkarteak antolatuta. Coliseo.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.



EUSKARALDIA

18:00/21:00 Euskaraldiaren furgoneta eta mahaia (izen-ematea eta banderaxoen salmenta). Untzaga.



FILM LABURRAK

19:30 XXIII. Eibarko Film Laburren Jaialdiko sari banaketa ekitaldia. Coliseo.

DOMEKA 13

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 2-5 urte bitarteko haurrek eta beren familiek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua kiroldegia.

PATINAK IPURUAN

17:45/19:45 Patinatzeria joateko aukera. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 14

GAZTAINERRE

19:00 "Ondra janak tabernaz taberna". Kalejira eta merienda, trikitilariak lagunduta. Paloma tabernatik abiatuta, Urkira.



MARTITZENA 15

ILLUNABARRIAN

18:00/20:30 Zigiluak zizelkatzen ikasteko tailerra. ...eta kitto! Euskara Elkartea.



AUZO-BILERA

19:00 Erdigune-ekialdeko bizilagunekin. Coliseo.

EGUAZTENA 16

AUZO-BILERA

19:00 Amañako bizilagunekin. Auzoko eliza.

EGUENA 17

JARDUNALDIA

12:00/13:00 Enpresetako eraldaketa digitalari buruzko saioa. Armeria Eskola.

EUSKARALDIA

18:00/20:00 Izen-ematea eta banderaxoen salmenta. Urkizuko parkea.

AUZO-BILERA

19:00 Ipuruako bizilagunekin. Ipuruako jubilatuta etxea.

ERAKUSKETAK

Azaroaren 20ra arte:

- "INDALEZIO OJANGUREN XXXV. argazki lehiaketa". (Portalea).
- **AIMU MAESO**ren "Azulejos". (Portalea).

Azaroaren 30era arte:

- **PILAR AGUAYO**ren argazkiak. (Depor taberna).
- **ESTRELLA TARDIO**ren argazkiak. (Portalea taberna).

Abenduaren 11ra arte:

- "EIBAR ORGANOSZ BLAI". (Armagintzaren Museoa).

Abenduaren 18ra arte:

- **JUAN SAN MARTIN**en omenezkoa. (Eibarko Liburutegia).

Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN". (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

SORALUZE

GAZTAÑERRE AZOKA

12an (zapateria)

12:00 Azokaren irekiera
12:00 Bertsolariak,
dantzak, sagardo-lehiaketa
14:30 Baba-jana karpan
19:00 Erromeria karpan
(Bide Batez)
23:00 Erromeria gaztetxean
(Fan&Go)

ERMUA

SAN MARTIN AZOKA

12an (zapateria)

11:00 Azoka, herri-kirolak...
13:30 Sari-banaketa
18:00 Erromeria (Luhartz)
19:00 Kalejira, Bizkaiko gaiteroak, Larraindantza

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **12an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **13an:** 17:00, 20:00 (Antzokia)
- **14an:** 20:30 (Antzokia)

“El cuarto pasajero”

Zuzendaria: Alex de la Iglesia



1 ARETOA

- **13an:** 20:00
- **14an:** 20:30

“La forja de un campeón”

Zuzendaria: Daniel Graham



2 ARETOA

- **12an:** 19:45, 22:30
- **13an:** 17:00, 20:00
- **14an:** 20:30

“Vasil”

Zuzendaria: Avelina Prat



ANTZOKIA

- **12an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **13an:** 17:00

“Hopper oilaskoerbia”

Zuzendaria: Ben Stassen



Gaizka Vitoria Arano

6. URTEURRENA
2016/11/13

“Urak dakarrena urak daroa.
Zuk emandakoa gurekin geratzen da”



- ETXEKOAK -



Idoia Uriguen Osa

7. URTEURRENA
2015/11/08

“Beti zenuen irripar bat,
hatz goxo eta esker ona.
Elkartuko gara berriro
gure betiko lekuetan
eta besarkatuko gara”



MAITE ZAITUGU
- GURASUAK -

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eu



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **EKHI!!**
Bixar 12 urte egingo dozuz. Besarkada haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maddiren partez!



Zorionak, **LOREA**, atzo 5 urte bete zenduaz-en-eta! Asteburuan ospatuko dogu. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MAIALEN**, etzi 2 urtetxo egingo dozut-eta. Musu asko famelixaren eta, batez be, zure anai Manexen partez!



Zorionak, **MIREN**, martitzenian 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **JOSU!** Bixar 9 urte beteko dozut-eta! Famelixaren eta, batez be, Xabierren partez.



Zorionak, **ETXAHUN!** Atzo 5 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion eta, batez be, Xabaten partez.



Zorionak, **IZARO!** Gaur 14 urte dague-neko! Jarraitu halakua izaten, txapelduna. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ANA MARI**, domekan urtiak beteko dozut-eta. Ondo pasatuko dogu. Seme-alaba eta illobaren partez.



Zorionak, **IRATI!** Domekan 11 urte egingo dozut-eta. Famelixaren eta, batez be, Oierren partez.



Zorionak, **LUKA** eta **JULEN!** Jarraitu dakazuen bizipozarekin! Laztan haundi bat etxekuen partetik!



JUNEK eta **MARKELEK** urtetxua eta 6 urte bete dabez!! Milla musu eta zorionak gure potxolueri, famelixa guztiaren partez.

Josetxo Arana Areitio

6. URTEURRENA
2016/11/08

"Ahazten ez dena inoiz ez da hilko"

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -

Ana Dominguez Areta

2022/11/05

"Eskerrik asko, ama. Faltan botako zaitugu"

- ETXEKOAK -

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan. Erreferentziak. 667060292.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioarekin. 688779828.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Sozio-sanitario ikastaroarekin. Esperientzia handia. 642709219. Angel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita aste-buruetan eta ospitalean ere. 631612442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Erreferentziak. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 642782903

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 747447360.
- Gizonezkoa eskaintzen da pegorak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 643575070.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta tabarnan laguntzeko. 622023451.
- Mutil euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 688723822.
- Gizonezkoa eskaintzen da pegorak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 643575039.

4.2. Langile bila

- Taxi-lizentzia traspasatzen da. Autoa Eibarren du. 606848794.
- Ume-zaintzaile behar da egun batzuetarako. Ondo ordainduko zaio. 688678934. Blanca.
- Harakina behar da Soraluzen, haragia zatikatzen, haragi-produktu deribatuarak egiten eta bezeroaren arretan esperientzia duena. Bidali curriculum: Whatsapp bidez, 641215470, edo telefonoz deitu, 943 75 12 49.
- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka lan egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com
- Odontologoa behar da klinika batean, lehenbailehen haste-ko. Bidali curriculum: hortziklinika.06@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Magisteritza tituluduna eskaintzen da 1. Hezkuntzatik aurrerako klaseak emateko. 688746368.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Aulkia opari. Prezioa adosteko. 667549101.
- Sofa salgai, camel kolorekoa. Berria dago. 1'78x0'82x0'95. Kulunkaulki (mezedora) vintage musutruk. 150 euro. 617224139.
- Mepamsa AEG salgai. 60x50. 30 euro. 652 72 25 38.
- Termo elektrikoa salgai. Fleck Duo-5 50 EU. 200 euro. 652 72 25 38.

Eskatu **ticketa** hazten jarraitzeko. **BAI.**



Eskatu TicketBAI, etorkizuneko erronkei aurrea hartuko dien Gipuzkoa bat eraikitzeko.
gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI



GILDA 2022 LEHIAKETA

Abenduak 13 - 14 - 15

Izena emateko eta argazkia bidaltzeko
azken eguna: **AZAROAK 15**

 (605 71 14 22)  (komunikabideak@etakitto.eus)

SARIAK  Tradizionala (150€)
Berritzailea (150€)
Herritarrena (150€)

Euskeraz
primeran!



EPAIMAHAIA:
Mireia Alonso,
Ruben Etxaniz
eta Josu Mugerza


etakitto!
Auzotako elkartea





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontozian, Implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Korruptentsean.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza
New York-eko Unibertsitatea.
Okulsiotan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Asteleheneretik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**